

GALDAKAO UDAL MUGARTEAN ANIMALIAK EDUKI ETA BABESTEA **ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA.**

ZIOEN AZALPENA

Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Eusko Legebiltzarraren Legeak gutxieneko esparru juridikoa ezarri zuen gizakiak eta animaliak elkarrekin bizi ahal izateko, osasungarritasun publikoarekin bat eginez, batik bat, horiek errespetatuz, defendatuz eta babestuz, interes orokorretara egindako egokitzapenarekin batera.

Lege hori argitaratu eta indarrean jarri denetik, gizartean animaliak edukitzeko hazkunde kuantitatibo nabaria gertatu da, eta, aldi berean, gizartean animalien eskubideei nahiz gizarte-eremu modernoan elkarbizitza egokia izateko behar duten esparruari begira dagoen kontzientzia modu kualitatiboan ere areagotu egin da.

Beste aldetik, gaia arautzeko prozesu garrantzitsua garatu da eta horren adierazpen argiena, beharbada, Animalia Arriskutsuak Edukitzeko Araubide Juridikoari buruzko abenduak 23ko 50/1999 Legea izan da. Izan ere, izaera horretako animalia zehatzak edukitzeagatik gizartean sortu den alarmaren aurrean horiek edukitzeko araubide zorrotza ezarri da, aurretiazko lizentzia eskuratu nahiz edukitzearen inguruko baldintza zehatzak betetzeko nahitaezkotasuna barne.

Hasieran eta abenduaren 23ko 50/1999 Legearen lege-garapenik eza dela eta, hori behar bezala aplikatu ahal izateko, gure eremu autonomikoan Euskal Autonomia Erkidegoan Txakurrak edukitzea arautzen duen apirilaren 4ko 66/2000 Dekretua onesteko erabakia hartu zen. Dekretu horrek, beste gorabehera batzuen artean, animalia arriskutsuen kontzeptua definitu zuen, zenbait animalia edukitzearen aurrean aipatu gizartean dagoen kezka dela medio. Hala ere, arau horren indarraldia eztabaidagarria izan zen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuaren argitalpenarekin, abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen duena. Hain zuzen ere, Lege horren aplikazio-eremua zehazki mugatzen du, neurri handi batean, oinarritzko izaerarekin.

Segurtasunik gabeko egoera hori gainditu eta arauketarako esparru egonkorra finkatu ahal izateko, Euskal Herrian Txakurrak Edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretua argitaratu da, zenbait berrikuntzekin, hala nola, aurreko arauketa bateratu du, beharrezkoa denean, Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legean adierazitako testuingurua kontuan izanda.

Horrela, ordenantza honetan aipatu prozesua bildu eta gaurkotzen du, bai eta animaliak edukitzearen, babesaren eta merkaturatzearen gain eragina duten bestelako arauak ere, betiere udal-jarduketaren eremura egokituta. Horrenbestez, animaliak edukitzearekin eta gizarte moderno nahiz konplexuen esparruan gizakiekin elkarbizitzeko fenomenoarekin zerikusia duten alderdien eta jarduketa-eremu elkarlotuen konplexutasuna arautu, kontrolatu eta horietan esku hartzeko tresna baliagarria eta eraginkorra eskuratu nahi da.

I. TITULUA

XEDEA, APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK

I. KAPITULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. ARTIKULUA.- XEDEA.

Ordenantza honen xedea Galdakaon dauden animaliak babestu, eduki eta saltzeko arauak ezartzea da, udalerrian errolatuta edota erregistratuta dauden edo ez dauden kontuan izan gabe, eta jabeen edo edukitzeileen bizilekua edozein izanda ere, ingurumen-osasunerako eta pertsonen lasaitasun, osasun eta segurtasunerako egon daitezkeen arriskuak aintzat hartuta.

Horretarako, animaliek jaso beharreko gutxieneko arreta zehaztu da tratu, garbitasun, zaintza, babes eta garraioari dagokienez. Horrez gain, establezimendu berezietan egoteari, horien osasun-laguntzari, merkaturatzeari eta salmentari buruzko arauak zehaztu dira.

Gisa berean, animalia arriskutsuak edukitzeko araubide juridikoa arautu da, lizentziaren, edukitzearen baldintza orokorren eta erregistro-araubidearen mende jarrita.

2. ARTIKULUA.- SALBUETSITAKOAK.

Hona hemen ordenantza honetatik salbuetsita dauden alorrak. Horiek arauketa propioaren bidez erregulatuko dira:

- a) Ehiza.
- b) Arrantza.
- c) Basoko animaliak euren ingurunean zaindu eta babestea.
- d) Zezen-ikuskizunak.
- e) Abeltzaintza, gizentzeko helburuarekin hartutako abelazkuntza, hain zuzen, hori bestelako herri administrazio eskudunek kontrolatzen dutenean.
- f) Esperimentaziorako edo bestelako helburu zientifikoetarako erabilitako animaliak.

II. KAPITULUA.- DEFINIZIOAK

3. ARTIKULUA.- DEFINIZIOAK.

- 1) Ordenantza honen ondoreetarako, etxeko animalia izango da bizitzeko pertsona baten laguntza behar duena.
- 2) Animalia etxekotua izango da, basoan aske jaio arren, pertsonen alboan egotera ohitu dena, eta, azkenean, bizitzeko pertsonen laguntza behar duena.
- 3) Gatibu dauden animalia basatiak izango dira, aske jaio arren, gatibu daudenak, etxekotzen irakatsi gabe.
- 4) Animalia arriskutsuak dira basoko animaliak izan eta animalia etxekotu edo laguntzako animalia gisa erabili arren, horren oldarkortasuna kontuan izan gabe, euren espezieak edo arrazak direla-eta pertsonak edo beste animaliak hil edo zauritu ditzaketenak, bai eta bestelako kalteak eragiteko gai direnak ere.

Halaber, animalia arriskutsuak izango dira, berebat, arauz zehaztutako animalia etxekotuak edo laguntzako animaliak, eta, bereziki, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren I. eta II. ERANSKINetan zehaztutako txakurren espezieetakoak eta Dekretu horren 10.1.c) artikuluaaren arabera adierazitakoak.

- 5) Ustiapenerako animaliak dira, gizakien ingurunera egokituta egon arren, gizakiak irabazizko helburuetarako erabiltzeko hazten dituenak, dela animaliak dela horiek sortutako ekoizpenak.
- 6) Edukitzeko baldintza berezien mende dauden txakurrak dira, horien inguruabar etologikoak direla eta, udal-agintaritzak horiek edukitzeko baldintza berezien mende kokatzen dituenak.

II. TITULUA

ANIMALIAK EDUKITZEKO ARAUBIDE JURIDIKOA

I. KAPITULUA.- ARAU OROKORRAK

4. ARTIKULUA.- BETEBEHARRAK

1.-Animaliaren edukitzaileak garbitasun- eta osasun-baldintza egokiak eskaini behar dizkio, bai eta instalazio egokietan gorde ere. Gainera, janaria eta edaria emango dizkio. Orobat, al baitariarengana eraman beharko du, ariketa fisikoa egiteko aukera eskainiko dio eta animalia-espeziearen edo -arrazaren beharrian fisiologiko eta etologikoen arabera zainduko du.

2.- Bereziki, animaliak zaintzeko gutxieneko baldintza hauek ezarri dira:

a) Behar besteko ura eta janari orekatua ematea, elikadura eta osasun maila onak izateko.

b) Esparru, aireztapen, hezetasun, tenperatura, argi eta babes egokiak izatea horien sufrimendua saihesteko eta bizi-beharrizanak nahiz ongizatea asebetetzeko.

c) Tokiak garbituta, desinfektatuta eta intsektuak kenduta izatea, aldizka eginkariak nahiz txiza kenduz.

d) Ibilgailuak ez dira izango ohiko bizilekuak.

e) Animaliak ibilgailu partikularretan garraiatzeko behar besteko esparrua egon behar da, aire librearengandik nahiz gorabehera klimatiko gogorrengandik babesteko eta gidariaren arreta, trafiko-segurtasuna eragotzi ez dezan edo ikuspegi etologiko nahiz fisiologikotik baldintza desegokiak sor ez daitezen.

f) Aparkatutako ibilgailuen barruan animaliak badaude, ezinezkoa izango da ibilgailu horiek lau ordu baino gehiago aparkatuta egotea, eta, udan, ibilgailuak itzalean kokatu beharko dira, une oro aireztapena errazteko helburuarekin.

3.- Animalia baten jabearen edo edukitzailearen ustez animaliak gaixotasun kutsagarria badu, al baitariari horren berri emango zaio. Horrela, al baitariak jarraian hori agintari eskudunari jakinaraziko dio, baldin eta gaixotasuna zoonosia dela uste badu edo hori baieztatu bidezake.

4.- Pertsoneri edota beste animaliei kutsa daitekeen gaixotasuna duten animalia guztiak, al baitariak diagnostikatuta, bere iritziz, horiek hil egin behar badira, eutanasia-sistemaren bidez egingo da, jabeak hala baimenduta.

5. ARTIKULUA.- ANIMALIEN IDENTIFIKAZIOA

1.- Txakurren jabeek edo edukitzaileek horiek identifikatu eta udalean hilabeteko epean erregistratu behar dituzte, jaiotzatik edo hori eskuratu dutenetik zenbatuta, baldin eta udalerrian modu iraunkorrean edo hiru hilabete baino gehiago badaude. Betebehar horrek beste laguntzako animaliak ere barnean hartuko ditu.

2.- Identifikazioa egiteko, txakurrei euren lepoaren ezker aldean mikrotxipa edo osagai mikroelektronikoa ezarriko zaie. Hori foru- edo udal-albaitari ofizialak edo animalia txikietarako gaitutako albaitari pribatuak gauzatuko du.

Mikrotxipa jartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan animalia identifikatzeko metodo elektronikoaren erabilera arautzen duen Nekazaritza eta Arrantza Sailburuak 1993ko maiatzaren 5ean emandako Aginduan eta ezar daitezkeen bestelako arauetan xedatutakoa beteko da.

Animalia identifikatzeko unean, albaitari ofizial edo gaitu ofizialak Kartilla Ofiziala eta berori identifikatu nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan Animalia Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (REGIA/AIEO) inskribatzeko eskabidea beteko ditu, azken hori 1993ko maiatzaren 5eko Aginduaren bidez sortu dena. Interesdunek agiri hori albaitari ofizialen edo gaituen bulegoetan jaso ahal izango dute. Horietako ale bat albaitari jardulearen esku geratuko da, eta beste biak animalia jabeak jasoko ditu. Horrela, jabeak ale bat Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailari igorri beharko dio, NANaren fotokopiarekin batera, datuak AIEOn inskribatu ahal izateko.

3.- Erroldan identifikatu ez bada, edo ezarri epean egin ez bada, arau-haustea gertatuko da Animaliak Babesteari buruzko Legearen 27.1.a artikuluan xedatutakoari helduta.

4.- Animalia jabeak AIEOri erregistroan jasotako datuetatik edozeini buruz egindako aldaketa jakinarazi beharko dio, horien artean:

- a) Titularrari edota animalia jabearen buruzko datuen aldaketa.
- b) Titulartasun-aldaketak.
- c) Animalia jabearen baja, heriotzarengatik edo EAetik kanpora egindako behin betiko lekualdaketarengatik.
- d) Desagerpena, hori galdu edo lapurtzeagatik.

Jakinarazpena 10 eguneko epean egin beharko da, galera edo lapurreta gertatzen denean izan ezik. Kasu horietan, 48 orduko epean egin beharko da, galera edo salaketa egiten denetik zenbatuta, salaketaren kopia aurkeztuta.

Aldaketaren edo gorabeheraren eskabidea, NANaren kopia erantsita, interesdunek udalean edo Foru Aldundian edo albaitari gaituen

bulegoetan eskuragarri izango duten agiria beteta egingo da. Bada, a), b) eta d) puntuetan ezarri kasuetan, interesdunak kasuan kasuko alea AIEOri igorriko dio.

Bestalde, b) atalean ezarri kasuetan, hots, salmentaren, dohaintzaren edo indarreko legerian ezarritako moduetatik edozeinen ondorioz eskualdaketa gertatzen denean, orduan alderdi jarduleek aldaketa egiteko eskabidea bete beharko dute, zenbatuta eta laukoiztuta. Kartilla Ofizialean idatzoharra eta ikusonespena Udal Osasuneko Zerbitzuak edo Aldundiak egingo du, bertan erabilitako agiriaren zenbakia zehaztuta. Agiri bat alderdi jardulearen esku geratuko da, eta beste bi ale jabe berriaren esku geratuko dira. Azken horrek ale bat hilabeteko epean AIEOri igorri beharko dio, eskualdaketa-datatik zenbatuta.

Edozein salmenta edo lagapen eginez gero, jabe berriari animaliak behar bezala identifikatuta, erroldatuta eta Kartilla Ofiziala gaurkotuta emango zaizkio.

Artikulu honetan jasotako errolda-identifikazioan egindako aldaketak Erregistroari jakinarazi ez bazaizkio, arau-haustea gertatuko da Animaliak Babesteari buruzko Legearen 27.1 a) artikulua aintzat hartuta.

6. ARTIKULUA .- EDUKITZEAREN BALDINTZAK

1.- Animalia-aren edukitzaileak horrek sortutako kalteen, galeren eta eragozpenen gaineko erantzukizuna izango du, Kode Zibilaren 1905. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.- Animalia-aren edukitzaileak eginkariak bide eta esparru publikoetan geratzea saihesteko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu.

Atal honetan ezarritakoa betetzen ez bada, arau-hauste arintzat joko da, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko Legearen 34-4-c) artikuluan ezarritakoari helduta, hori guztia lege horrek baimendutako neurri osagarriak aplikatzeari kalterik egin gabe.

3.- Erroldatuta edota erregistratuta dagoen animalia-aren edukitzaileak edo horrek baimendutako pertsonak, hala denean, horren galera salatu beharko du.

7. ARTIKULUA.- EDUKITZEAREN MUGAK

1.- Orokorrean, etxebizitza partikularretan etxeko animaliak edo animalia etxekotuak eduki daitezke.

2.- Orokorrean eta arrazoi etologikoak direla medio, 40 m² bakoitzeko urtebete baino gehiago duen txakur bat bakarrik hartu ahal izango da, bai eta Jabetza Horizontalari buruzko Legearen mende dauden ondasun higiezin kolektiboetan, bai balkoietan, garajeetan, pabiloietan, sotoetan, teilatu lauetan, lorategietan edo bestelako lokal nahiz hiri-lurrean ere.

Udal-agintariak interesdunari animaliak edukitzeari buruzko inguruabarrekin zerikusia duen informazioa eta agiriak eman edota animalia bere esku jartzea eskatu ahal izango dio. Halakorik betetzen ez badu, arau-hauste larria eragingo du, ordenantza honen 44. artikuluan ezarritakoaren arabera.

8. ARTIKULUA- BERTAN BEHERA UTZITAKO ANIMALIAK

Bertan behera utzitako animalia da jatorriaren eta jabearen identifikaziorik ez duena, ezta inoren laguntzarik gabe doana ere. Bertan behera utzitako animalia izango da, berebat, identifikazioa izan arren, jabeak edo baimendutako pertsonak horren galera salatu ez duena.

9. ARTIKULUA.- BERTAN BEHERA UTZITAKO ANIMALIEI BEGIRA APLIKATUTAKO PROZEDURA

1) Bertan behera utzitako animaliak Administrazioak jasoko ditu Zerbitzu propioaren edo hitzartuaren bidez. Animalia harrapatu eta garraiatzeko erabili diren baliabideek garbitasun- eta osasun-baldintzak bermatu behar dituzte, eta animalien ezin izango die eragin inolako sufrimendurik.

2) Goiko puntuan aipatutako animaliak Animalien Bilketarako Zentroan legez ezarri epean egon beharko dira. Jabeak animalia berreskuratu nahi izanez bero, izaera hori egiaztatzeaz gain, animalien mantentze- eta egonaldi-gastuak ordaindu beharko ditu.

Osasun-, arrisku- edo sufrimendu-inguruabarren arabera komenigarria denean, aipatu zerbitzuko albaitariaren irizpideari jarraiki, epea beharrezkoa den neurrian murriztuko da.

3) Epe hori igaro bada eta identifikatu gabeko animalia erreklamatu ez bada, hori eskatzen duenak hartu edo laga ahal izango da, betiere animalien osasunari buruzko administrazio-egoera erregularizatzen bada, ordenantza honen I. eranskinean ezarritako moduan, eta, azken buruan, eutanasia-sistema aplikatuko da.

Edozein unetan, laguntzako animalien zaintza pertsona fisikoengan edo juridikoengan aldi baterako eskuordetu ahal izango da.

4) Animaliak identifikazioa badu, jabeak hori jaso edo harrapatu dela modu sinesgarrian jakinaraziko zaio. Hori dela bide, horrek zazpi eguneko epea izango du hori berreskuratzeko, baina bilketarako zentroan egindako egonaldi-gastuak ordaindu beharko ditu. Epe hori igaro bada eta jabeak hori berreskuratu ez badu, animalia aurreko atalean aipatu egoeran egongo da.

5) Animaliak euren kontzientzia berehala galdu eta sufrimendurik eragingo ez dien prozeduren bidez hilko dira, kontrolpean eta albaitariaren erantzukizunpean.

10. ARTIKULUA.- KALEKO ANIMALIAK

1) Animaliek pertsoneri edo ondasunei sor diezazkiekeen eragozpenak edota arriskuak saihesteko helburuarekin, herritarrek udaleko osasun-zerbitzuei kaleko edo bertan behera utzitako animalien berri emango diete.

2) Debekatuta dago bide publikoan edo orubeetan hegaztiei, txakurrei, katuei eta gainerako kaleko animaliei janaria ematea, hori beren beregi baimendu denean izan ezik.

Atal hori betetzen ez bada, arau-haustea eragingo du ordenantza honen 45. artikuluan ezarritakoari helduta.

3) Hiriko animalia asko badaude eta horiek kontrolik gabe badaude, udal-agintariak animalien kopurua kontrolatzeko beharrezko ekintza guztiak burutuko dituzte.

11. ARTIKULUA.- ERASO BATEN AURREAN APLIKATUTAKO PROZEDURA

1) Animaliak eragindako erasoaren salaketa edo horren berri jaso duen Udal-zerbitzuak salatzaileari edo egitateen berri-emaitzari erasoaren identifikazioa erraztuko duen edozein datu ematea eskatuko dio, eta hori berehala administrazio-espeditarearen izapideak egiteko ardura duen agintariari jakinaraziko dio. Hain zuzen ere, agintari eskuduna animalia zein erroldan ageri eta errolda horretako Administrazioa izango da, edo, halakorik izan ezean, jabearen bizilekukoa, agiria guztiak helarazita.

2) Pertsonari egindako erasoarekin batera, hozkaden ondorioz lesioak eragin bazaizkio, izapideak egin behar dituen agintari eskudunak Osasun Saileko Zaintza Epidemiologiko Unitateari eta Foru Aldundietako Animalien Osasun Zerbitzuei hori jakinaraziko die, horiek espeditatea ireki dezaten.

Lesioak eragin dituen animalia jabeak edota edukitzaileak, 24 orduko epean, animalia berak aukeratutako albaitari ofizialaren edo gaituaren behaketa-prozesuaren mende jarriko du hamalau eguneko epean, txakurren kasuan. Hala ere, epea ezberdina izango da animalia-mota kontuan izanda, edo unean uneko inguruabar epizootiologikoek hori egitea komenigarritzat jotzen dutenean, betiere aurretiazko ziodun txosten teknikoa aurkeztuta. Halaber, hozkada egin denetik hogeita lau ordu igaro ondoren, hori borondatez bete ez badu, orduan udal-agintari eskudunak hori egiteko eskatuko dio, animalia animalien bilketarako zentroan sartu edota isolatuz (II. Eranskina). Agindei hori betetzen ez bada, arau-hauste larria eragingo du Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 36.2.b.1 artikulua ariora, eta hori behar bezala betetzeko beharrezkoak diren kautela-neurriei kalterik egin gabe. Edozein kasutan ere, luzatutako txostenaren edo ziurtagiriaren zenbatekoa, halakorik badago, animalia jabeak edota edukitzaileak ordaindu beharko du. Animaliak jabe edo edukitzaile ezagunik ez badu, egitateen gaineko eskumena duen Udal Zerbitzuak hori jaso eta behaketa-prozesuaren mende jartzeko erantzukizuna izango du. Behaketa hori espedientearen izapideak egi behar dituen udal eskudunari jakinaraziko zaio egitateak gertatu eta hurrengo 72 orduko epean.

Albaitariak behaketa egin beharko du zoonosi-arriskua baztertu edo antzemateko eta animalia arrisku maila ebaluatzeko, kasuan kasuko emaitzaren ziurtagiria/txostena luzatuz, III. eranskinean jasotako ereduaren arabera. Jabeak edota edukitzaileak, behaketa bukatu ondoren, 48 orduko epean albaitariaren ziurtagiria/txostena espedientearen izapideak egin behar dituen agintari eskudunari igorriko dio, lehenengo lerrokadan aipatutakoa, espediente horri eransteko helburuarekin. Aldi berean, albaitariaren ziurtagiriaren/txostenaren kopia bidaliko dio kasuan kasuko Foru Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzuari eta Osasun Saileko Zaintza Epidemiologiko Unitateari. Behaketa-prozesuaren ondoriozko emaitzaren arabera, osasun-arriskuak hausten badira, orduan udal-agintariak txakurra zentroan sartu edota isolatu edo egonaldi horren luzapena agindu ahal izango du.

3) Erasoarekin batera hozkaden ondoriozko lesiorik sortu ez bada, txakurraren jabeak edo edukitzaileak berak aukeratutako albaitari ofizialaren edo gaituaren behaketaren mende jarri beharko du, horrek beharrezkotzat jotzen duen epean. Gainera, ziurtagiri egokia luzatuko du eta jabeak espedientearen izapideak egin behar dituen agintari eskudunari igorriko dio.

12. ARTIKULUA.- DEBEKUAK

1.- Hona hemen debekuak:

a) Animaliei tratu txarra eragitea edo oinazea, sufrimendua eta justifikatu gabeko larritasuna eragitea.

b) Bertan behera uztea.

c) Era berean, debekatuta dago ordenantza honetan jasotako animalia-espezietatik edozeinen gorpua bide publikoan bertan behera uztea. Halakorik gertatzen bada, kasuan kasuko Udal Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, egoera hori konpontzeko beharrezkoa dena bete dezan.

d) Bizitzeko behar duten janaria ez ematea edota garbitasunaren eta osasunaren ikuspuntutik desegokiak diren establezimenduetan edukitzea.

e) Gorputz-adarren bat moztea, al baitariak kontrolatutakoak direnean izan ezik, funtzioak betetzeko edo arrazaren ezaugarriei eusteko beharrezkoa izanik.

f) Alkohola, drogak edo botikak ematea edo kalte fisikoak edota psikikoak ekarriko dieten edozein manipulazio artifizial egitea, lehiaketa batean emaitzak hobetzeko asmoz egin denean izan arren.

g) Animalia berezko jokaeraren aurka edo tratu iraingarria ekarriko duen moduan aritzera behartzea.

h) Animalien borrokak.

i) Animaliak bide publikoan hiltzea, ezinbestekoa denean eta horretarako premia gorria dagoenean izan ezik.

j) 14 urtetik beherakoei edo pertsona ez gaiei animaliak saltzea, dohaintzan ematea edo lagatzea, guraso-ahala duten pertsonak edo tutoreak horretarako baimenik eman gabe.

k) Animaliak bide publikoan saltzea, baimendutako azoka edo merkatuetan izan ezik.

l) Animaliak laborategietarako edo kliniketarako saltzea administrazioaren kontrolik gabe.

ll) Animaliak publizitaterako erakargarri, sari edo ordainsari gisa ematea, diruzko eskualdaketen ondoriozko negozio juridikoak direnean izan ezik.

m) Babestutako espezieetako animaliak saltzea, bai eta horiek hartu edo erakustea, horien legeria zehatza kontuan izanda.

2.- Gisa bertsuan, debekatuta dago:

a) Animaliak janaria egin, saldu, biltegitatu, garraiatu eta maneiatzera zuzendutako lokaletan edo ibilgailuetan sartu eta egotea, osasun-agintariak hori baimentzen duenean izan ezik.

b) Animaliak jendaurreko ikuskizunak eskaintzen diren lokaletan, barrutietan eta esparruetan sartu eta egotea, bai eta igerileku publikoetan, osasun-etxeetan eta antzekoetan ere, hezkuntza-, kultura- edo aisia-establezimenduetan, baldin eta horien arau berezietan debeku hori jaso bada.

c) Jendearentzako irekita dauden gainerako establezimenduetako titularrek animalien sarrera eta egonaldia debekatu ahal izango dute, sarreran debeku hori argi eta garbi erakutsita.

d) Animaliak toki pribatuetan sartu eta egoteko, hala nola, kultura-sozietateetan, aisia-tokietan eta auzo-erkidegoen erabilera erkiderako tokietan, erakunde horiek arautzen dituzten arauen arabera jardungo da, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 4. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoaren kalterik egin gabe.

e) Animaliak balkoietan, garajeetan, pabiloietan, sotoetan, teilatu lauetan, lorategietan edo bestelako lokal edo hiri-lurrean ohiz edukitzea edo eskortatzea, horiek auzokoei edo oinezkoei eragozpen objektiboak eragiten dizkietenean.

f) Animalia eskortatuak edo erdieskortatuak parkeetan eta lorategi publikoetan eta hiri gisa kalifikatutako lursailetan ohi bezala egotea.

g) Laguntzako animaliak igotzeko tresnetan igo edo jaisteko, beti beste pertsona batzuk hori erabiltzen ez dutenean egingo da, baldin eta horiek horrela egitea eskatzen badute.

h) Debekatuta dago edozein animalia-espezie kanpoko esparru jendetsuetan edo jendearentzako irekita dauden lokaletan aske uztea. Are gehiago, animalia arriskutsua, basatiak eta /edo animalia kaltegarritzat edo basatitzat jotakoak, horientzat zuzendutako baldintzetatik, barrutietatik, eremuetatik edo parke zoologikoetatik kanpo egoteko debekua dute.

i) Txakurrak ezin dira lotuta eduki ondoko ondoko 8 ordu baino gehiago.

j) Txakurrak ezin dira bakarrik utzi etxean ondoko ondoko hiru egun baino gehiago.

13. ARTIKULUA.- SALBUESPENAK

1) Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, itsu-txakurren laguntza duten ikusmen urrikoek toki, ostatu, establezimendu, lokal eta garraio publikoetan sartu ahal izango dira. Establezimendu horien artean, ospitaleak, dela publikoak dela pribatuak, eta osasun-laguntzarako zentroak barnean hartzen dira.

2) Ikusmen-urritasuna duen pertsonak, aurretiazko agindeiarekin, animalia-itsu-txakur izaera egiaztatuko du, bai eta kasuan kasuko osasun-betekizunen betepena ere.

3) Itsu-txakurra gaixorik, oldarkor, zikin, edo, orokorrean, pertsonentzat arriskuak eragin ditzakeenean, aurreko artikuluan aipatu tokietan sartzeko debekua izango du.

14. ARTIKULUA.- LAGUNTZAKO ANIMALIEN ERKIDEGO ARTEKO LEKUALDAKETAK.

Jabeek edo edukizailleek euren txakurrak, katuak edo hudoak erkidego artean lekualdatu nahi izanez gero, toki batetik bestera aldatzeko ibilbide osoan Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren 2004ko irailaren 27ko aginduan edo hori ordeztzen duen arauketan araututako pasaportearen eraman beharko dute, albaitari ofizialak edo gaituak luzatutakoa.

II. KAPITULUA.- TXAKURREI BURUZKO XEDAPEN ZEHATZAK

15. ARTIKULUA.- ARAUBIDE OROKORRA

Txakurren kasuan, Euskal Herrian Txakurrak Edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuan, Animalia Arriskutsuak Edukitzeko Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan, aplikatu beharreko gainerako arauketan eta aurreko tituluetan jasotakoa, bereziki, identifikazioari eta erregistroari buruzkoa, aplikatuko da.

III. KAPITULUA.- ANIMALIA ARRISKUTSUEI BURUZKO XEDAPEN ZEHATZAK

16. ARTIKULUA.- ARAUBIDE OROKORRA

Ordenantza honen 3. artikuluan definitutako animalia arriskutsuen kasuan, Animalia Arriskutsuak Edukitzeko Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legean, hori garatzen duen martxoaren 22ko Errege Dekretuan eta aplikatu beharreko gainerako arauketan xedatutakoa aplikatuko da.

17. ARTIKULUA.- LIZENTZIA

1.- Animalia Arriskutsuak Edukitzeko Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen babespean jasotako animalia arriskutsu gisa sailkatutako animalietatik edozein edukitzeko, aurretiaz Administrazioaren lizentzia eskuratu beharko da. Lizentzia hori eskatzailearen bizilekuan dagoen Administrazioak egiletsiko du, edo udal horrek horren berri izanez gero, animalien merkataritza- edo heziketa-jarduera gauzatuko den tokiko udalak eman ahal izango du, gutxienez, hurrengo betekizunak beteta:

- a) Adin nagusia izatea.
- b) Hilketak-, lesio-, tortura-delituen, askatasunaren edo moralaren, sexu-askatasunaren eta osasun publikoaren aurkako delituen, eta banda armatuko edo narkotrafikoko delituen ondoriozko kondenarik ez izatea, ezta animalia arriskutsuak edukitzeko eskubidearen inguruan ebazpen judizialik ez izatea ere.
- c) Arau-hauste larrien edo oso larrien ondoriozko zigorrak ez izatea, Animalia Arriskutsuak Edukitzeko Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako zigor gehigarrietatik

edozeinekin batera. Hala ere, lizentzia eskuratu edo hori berriztatzeke eragozpena ez da izango aldi baterako etendura-prozesuan egotea, baldin eta eskabidea egiteko unean aurretik ezarritako etendura-zigorra oso-osorik bete bada.

- d) Animalia arriskutsuak edukitzeko behar besteko gaitasun fisikoa eta psikologikoa izatea.
- e) Erantzukizun zibileko aseguruia egin dela egiaztatzea hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalteengatik, ehun eta hoge mila euro baino gehiagoko estaldurarekin (120.000).

Txakur arriskutsuen jabeek, ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 13-3-e) eta 12. artikuluen arabera, aurreko artikuluan aipatu aseguruia formalizatzeko betebeharrak gain, hamar eguneko epean kontratatu beharko dute, txakurra identifikatzen denetik zenbatuta eta hori kasuan kasuko erregistroan inskribatu baino lehen.

Aseguru hori beste aseguru batzuen barnean jaso ahal izango da, baina edozein kasutan ere, horren kontratazioa ziurtagiri baten bidez egiaztatu beharko da, 101/2004 Dekretuaren III. eranskinean aipatu ereduaren arioren, aseguru-konpainiak luzatuko duena. Halaber, eranskin horretan, aseguru horrek estaltzen duen txakurraren identifikazioa beren beregi jasotzen du, ondoreak sortzen hasiko den datarekin nahiz epe-mugarekin batera.

Txakurraren titularrak txakurrak indarreko erantzukizun zibileko aseguruia bizi osorako izateko erantzukizuna izango du. Horretarako, unean-unean egin beharreko berriztapenak egingo ditu.

- f) 1. atal honetako b) eta c) paragrafoetan ezarritako betekizunen betepena kasuan kasuko erregistroek luzatutako ziurtagiri negatiboen bidez egiaztatuko da. Gaitasun fisikoa eta psikologikoa goian aipatutako martxoaren 22ko 287/2002 Dekretuan xedatutakoaren arabera eskuratutako ziurtagirien bidez egiaztatuko da.

2.- Administrazioaren lizentzia Alkatetza-udalburutzak egiletsi edo berriztatuko du, interesdunak hala eskatzen duenean, 50/1999 Legean xedatutakoari helduta, aurreko atalean ezarritako betekizunak bete direla egiaztatu ondoren.

3.- Lizentziaren iraupena bost urtekoa izango da, baina epe bereko ondoz ondoko luzapenak egin daitezke. Zernahi gisaz, lizentziak bere indarraldia galduko du titularrak aurreko atalean ezarri betekizunetatik edozein betetzen ez denean. Lizentzian jasotako

datuak aldatu badira, titularrak hamabost eguneko epean jakinarazi beharko dio hori luzatzeko eskumena duen Alkatetza-udalburutzari, aldaketa hori egiten denetik zenbatuta.

4.- Indarreko administrazio-lizentziaren gain eragina duen eskuhartzea, kautela-neurriak edo etendurak, bide judizialean edo administrazio-bidean erabakitakoa, beste bat luzatu edo hori berriztatzeko ukapen-zioa izango da, haiek ezabatzen ez diren bitartean.

5.- Artikulu honen 1. paragrafoan agindutako betekizunak bete gabe emandako lizentziak deusezak izango dira ondore guztietarako. Horrenbestez, titularrak ez du izango lizentziarik.

18. ARTIKULUA.- ANIMALIA ARRISKUTSUEN ERREGISTROA

1.- Lizentzia duen titularrak Animalia Arriskutsuen Udal Erregistroan inskribatzeko eskaera egin beharko du, lizentzia egokia eskuratu eta hurrengo hamabost eguneko epean.

2.- Animalia Arriskutsuen Udal Erregistroari animalia salmentaren, eskualdaketaren, dohaintzaren, lapurretaren, hilketaren edo galeraren berri eman beharko zaio, eta hori kasuan kasuko erregistroko orrian agerraraziko da.

3.- Animalia arriskutsu bat Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo dagoen beste udalerrira batera lekualdatzen bada, bai modu iraunkorrean bai hiru hilabete baino gehiagoko eperako, jabeak kasuan kasuko Udal Erregistroetan inskripzio egokiak egin beharko ditu.

4.- Animalia arriskutsuen titularrak artikulu honetan agindutakoa betetzen ez badu, administrazio-zigor egokia ezarriko zaio, 50/1999 Legearen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.

19. ARTIKULUA.- SEGURTASUN-NEURRIAK

1.- Animalia arriskutsuen jabeek, hazleek edo edukizailleek indarreko legerian jasotako herritarren segurtasunari buruzko arauak bete beharko dituzte, animalia horiek gizakiekin modu egokienean elkarbizitzeko eta herritarrei kalterik ez sortzeko.

2.- Animalia arriskutsuak toki edo esparru publikoetan badaude, hori gidatu edo kontrolatzen duen pertsonak ordenantza honen 17. artikuluan zehaztutako administrazio-lizentzia eskura izan behar du, bai eta animalia arriskutsuen udal erregistroan inskribatuta dagoela adierazten duen egiaztatzea ere.

3.- Finkan, landa-etxean, txaletean, lursailean, terrazan, patioan edo mugatutako beste edozein tokitan dauden animalia arriskutsuak lotuta egon beharko dira, azalera, altuera eta itxiera egokia duen esparrua dutenean izan ezik, toki horietara hurbiltzen diren pertsonak edo animaliak babes daitezzen.

4.- Animalia arriskutsuen hazleek, hezitzaileek eta merkatariak horiek edukitzeko instalazio eta baliabide egokiak izan beharko dituzte.

5.- Animalia arriskutsua ostu edo galtzen bada, titularrak animalia arriskutsuen udal erregistroari berrogeita zortzi orduko epean jakinarazi beharko dio, egitate horien berri duenetik zenbatuta.

20. ARTIKULUA.- SALBUESPENAK

Inguruabarrek komenigarritzat jotzen dutenean, jabeek betekizunak betetzeko salbuespenak ezarri ahal izango dituzte hurrengo kasuetan:

- a) Animaliak gizarte-eginkizunerako erabiltzen dituzten erakunde publiko edo pribatuak.
- b) Zaintza-txakurrak, defentsa-txakurrak edo azienda maneiatzeko txakurrak erabiltzen dituzten nekazaritzako ustiategiak, bai eta jarduera zinegetikoak ere. Hala ere, ezinezkoa izango da horiek 50/1999 Legean jasotako jarduera ez-zilegiak egitea.
- c) Lan- eta kirol-probak, horietan parte hartzen den animalia-eredua aukeratzeko helburuarekin, betiere agintari eskudunak baimenduta eta gainbegiratuta, borroka- eta eraso-ariketak izan ezik, indarreko arauketan eta ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

21. ARTIKULUA.- GARRAIOA

Animalia arriskutsuen garraioa, animalia-ongizateari buruzko arauketarekin bat etorrira burutu beharko da. Horrela, garraioa edo zamalanak egiten diren bitartean, pertsonen, ondasunen eta beste animalien segurtasuna bermatzen duten arreta-neurriak hartu beharko dira.

III. TITULUA

ANIMALIEKIN ZERIKUSIA DITUZTEN JARDUERAK

I. KAPITULUA.- GUNE ZOOLOGIKOAK

22. ARTIKULUA.- ARAUBIDE OROKORRA

1.-Gune zoologikoak Gune Zoologikoei buruzko apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuan edo hori ordeztzen duen arauketan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

2.- Gisa berean, aurretiaz udalaren lizentzia eskuratu beharko dute Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorrean, lizentzia eskuratzeko salbuetsita dauden jardueren zerrenda jasotzen duen 165/99 Dekretuan eta aplikatu beharreko gainerako arauketan ezarritako baldintzetan.

II. KAPITULUA.- ERAKUSKETAK ETA LEHIAKETAK

23. ARTIKULUA.- OSPAKIZUNAREN BETEKIZUNAK

Jarduera iraunkorretan edo aldi baterako jardueretan, lokal itxietan edo esparru irekietan egindakoak, horien helburua laguntzako animalien lehiaketak edo erakusketak egitea bada, baldintza zehatz hauek bete beharko dira:

- a) Udalaren baimen egokia izatea: aldi baterako jardueren kasuan, okupazio-lizentziei kalterik egin gabe udal-bide edota -esparru irekietan egin nahi direnean, antolatzaileek alkatetzaren baimen egokia eskuratu beharko dute, aurretiaz osasun-zerbitzuen txostena aurkeztuta.
- b) Aipatu baimenarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:
 - 1) Jardueraren deskripzioa.
 - 2) Eskatzailearen izena, helbidea eta telefonoa.
 - 3) Kokapena.
 - 4) Jardueren garapen-epea.
 - 5) Animalia-kopurua eta -espezieak.
 - 6) Organo eskudunak luzatutako guneei zoologiko ibiltari gisa emandako baimena.
 - 7) Kasuan-kasuan jardueran parte hartzen duten animaliei buruz eska daitezkeen agiriak (jatorriaren gida, osasun-kartilla, kasuan kasuko udal-erroldan egindako inskripzioa, animalia identifikatzeko txartela, etab).
 - 8) Erantzukizun zibileko aseguruua, jarduera garatzeko epea zehaztuta.
 - 9) Instalazioen muntaketa egokiari buruz teknikari eskudunak luzatutako ziurtagiria, elkargo profesional egokiak ikusonetsita.
- c) Erizaintzako lokal bat ezarri beharko da. Zerbitzu hori alibaitari fakultatibo baten ardurapean egongo da eta kirurgia txikiko gutxieneko ekipamenduak izateaz gain, oinarrizko botikina izango du.
- d) Enpresa edo erakunde antolatzaileek, jarduerak egiten diren bitartean, instalazioak edota esparruak garbitzeko zerbitzuak izango dituzte, horiek zehatz-mehatz garbitu eta desinfektatu ditzaten, baimen-epea amaitu ondoren.
- e) Ur-hornidura eta saneamendu-hustubidea izango dute jardueraren osagai guztietan, batez ere, behar bezala funtzionatzeko beharrezkoa denean, eta soinu-igorpenei eta -inmisioei buruzko mugak errespetatutako dituzte.

24. ARTIKULUA.- HERRI-KIROLAK

Oinarrizko osagai gisa etxeko animaliak erabiltzen diren euskal herri-kiroletan, era berean, udalaren aurretiazko baimena eskuratu beharko dute, Eusko Jaurlaritzak arauz ezarritako baldintzetara eta betekizunetara egokituta. Edozein kasutan ere, garbitasun-, osasun- eta elikadura-baldintza egokiak beteko dira, bereziki, hurrengo hauek:

- a) Debekatuta dago animaliei alkohola, drogak edo botikak ematea, edo kalte fisikoak nahiz psikikoak ekar diezazkiekeen edozein manipulazio artifizial erabiltzea, hori lehiaketan parte hartzeko errendimendua areagotzeko izan arren.
- b) Idi-probetan edo antzekoetan behi-espeziako animaliek parte hartzen badute, erakunde antolatzaileak foru-organo eskudunari baimen egokia eskatu beharko dio, EAEn idien kirol-probetan parte hartzen duten animalien identifikazio-sistemak nahiz osasun-baldintzak arautzen dituen 1993ko martxoaren 11ko aginduan ezarritakoari helduta.

III. KAPITULUA.- ANIMALIA TXIKIEN KONTSULTATEGIAK, KLINIKAK ETA OSPITALEAK

25. ARTIKULUA.- ARAUBIDE OROKORRA

Albaitaritzako kontsultategien, -kliniken eta -ospitaleen establezimenduek aplikatu beharreko arloko arauak beteko dituzte, eta, era berean, kasuan kasuko udal-lizentzia eskatuko dute.

IV. TITULUA

IKUSKAPENA ETA KONTROLA

26. ARTIKULUA.- IKUSKAPENA ETA KONTROLA

1.- Ordenantza honetan araututako gaiak tokiko poliziaren agenteek edo agintaritza-agentetzat jotako bestelako funtzionarioek ikuskatu eta kontrolatuko dituzte. Horrez gain, akta egin ahal izango dute (interesdunak bere desadostasuna adieraz dezake) eta hori interesdunari aktaren edo salaketa-buletinaren bidez jakinarazi eta organo eskudunari igorriko die, azken horrek beharrezkoak diren neurriak hartu, eta, bidezkoa izanez gero, zigor-prozedura hasi dezan.

2.- Arau-hausteen ondorioz delitua edo falta eragin bada, zigorra ezartzeko eskumena duen administrazio-organismoak zigor-arloko jurisdikzioari horren berri emango dio, eta zigor-prozeduran ez du parte hartuko ebazpen judizial irmoa adierazten ez den bitartean, ordu arte preskripzio-epea etenda geratuz.

3.- Esku-hartze judiziala gertatu aurretik administrazio-espedienteak instruitzen dituzten agintariek hartutako kautela-neurriek indarrean iraungo dute agintari judizialek esanbidezko adierazpena ematen ez duten bitartean.

V. TITULUA

ZIGOR-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

27. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

1.- Administrazio-arloko arau-haustek izango dira Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legean, Animalia Arriskutsuak Edukitzeko Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 29ko 50/1999 Legean, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean, Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta toki-gobernua modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak gehitutako apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. tituluari xedatutakoaren arabera ordenantza honetan halakotzat jo diren egintzak eta ez-egiteak.

2.- Administrazio-arloko arau-hausteen kasuan, artikulua honen aurreko atalean aipatutako arauketan ezarritakoaren arabera zigorra ezarriko da, arau-haustek behar bezala identifikatu nahiz zigorrek zehatz-mehatz zehazteko ordenantza honetan jasotako arau-hausteen zehaztapenei nahiz zigorren mailaketari kalterik egin gabe.

1. ATALA.- ANIMALIEN BABESA

28. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK

1.- Hona hemen arau-hauste arinak:

- a) Garbitasunari edota herritarren segurtasunari edota lasaitasunari begira garrantzi handirik izan ez duten Ordenantza honetan jasotako betebeharrak ez betetzea.
- b) Erroldako identifikaziorik ez duten laguntzako animaliak edukitzea, hori nahitaezkoa denean.
- c) Ordenantza honetan ezarritakoa betetzen ez dituzten animaliak garraiatzea.
- d) Animaliak arreta eta zaintza egokia jasotzea ezinezkoa den tokietan edukitzea.
- e) Animalia berezko jokoaren aurka edo tratu iraingarria ekarriko dion moduan aritzera behartzea.
- f) AIEOri Euskal Herrian Txakurra Edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 3. artikuluan jasotako txakurren erroldako identifikazioaren edota erroldako identifikazioan egindako aldaketan berri ez ematea.

2.- Hona hemen arau-hauste larriak:

- a) Animaliei janaria, edaria edo beharrezkoa den osasun-laguntza ez ematea, edo horien beharrezko fisiologikoak nahiz etologikoak aintzat hartuta, establezimendu desegokietan edukitzea garbitasun- eta osasun-alderdiei dagokienez.
- b) Animaliak albaitariaren kontrolik gabe edota Animaliak Babesteari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 9. artikuluan bereziki nahiz hori garatzen dituzten garapen-arauetan ezarritakoaren aurka esterilizatzea edo gorputz-adarren bat moztea edo hiltzea.
- c) Animalia ez txertatzea edo nahitaezko tratamenduak ez ematea.
- d) Animaliak baimenik gabe saltzea.
- e) Animaliei tratu txarrak ematea edo eraso egitea, arrazoirik gabeko sufrimendua edo lesioak eragitea, edo gorputz-adarren bat eragitea.

- f) Animaliei, zuzenean edo janarien bidez, arrazoirik gabeko sufrimendua edo kalteak ekar diezazkiekeen gaiak ematea.
- g) Kalteak eragin ditzaketen animaliak behar besteko zuhurtasunez ez zaintzea eta gordetzea.
- h) Hiriko bideetan eta esparruetan, ondasun higiezin kolektiboen alderdi erkideetan bezala, txakur-espezieko animaliek inolako kontrolik ez izatea eta bere ezaugarrietara egokitzen den katearekin edo uhalarekin lotuta ez egotea, gehienez ere, bi metroko luzerarekin.
- i) Ageriko min edo sufrimendu larriak erakusten dituzten animaliei albaitariaren zerbitzurik ez ematea.
- j) Animaliek administrazio-baimen egokirik ez duten ikuskizunetan parte hartzea.
- k) Hiru arau-hauste arin egitea, ebazpen irmoaren ondoriozko zigorra ezarriz, zigor-espeditentea hasi baino bi urte lehenago.
- l) Ordenantza honen 7.2 artikuluan eta ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 5.1 eta 2 artikuluetan adierazitakoa ez betetzea, azaleraren metro karratu bakoitzeko eduki daitekeen txakurren ratioari buruzkoa, eta aipatu artikulua zehaztutako lokaletan nahiz ibilgailuetan txakurrak sartu eta egoteari buruzkoa.
- m) Ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritako edukitzearen baldintza berezien mendeko txakurren gain ezarritako baldintza bereziak ez betetzea.
- n) Establezimenduek animaliak hazi edo saltzeko aldi baterako mantentze-baldintzak ez betetzea, Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legean edo hori garatzen duten arauetan ezarritakoari helduta, eta, bereziki, Gune Zoologikoei buruzko apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuan ezarritako puntu hauek:
 - Dekretuaren 7. artikuluan aipatutako Erregistro-libururik ez izatea.
 - Erregistro-liburu osagabeak edo zenbait daturik gabe izatea.
 - Animalia-espezieak saldu, eduki, trafikatu, merkaturatu eta erakustea, CITES arauketa nahiz irailaren 16ko 1881/1996 Errege Dekretuan ezarritakoa bete gabe.
 - Erregistroko inskripziorik edo funtzionamendurako baimen egokirik ez izatea.
 - Aldaketa egiteko baimen egokirik ez izatea edo Erregistroari zentroan edota establezimenduan egindako aldaketak ez komunikatzea.
 - Ikuskapenerako lan ofizialak ez ahalbidetzea, eragozteko edo horietan parte ez hartzea.

3.- Hona hemen arau-hauste oso larriak:

- a) Animaliak erasoen bidez edo gai toxikoak emanda hiltzea.

- b) Etxeko edo laguntzako animalia bertan behera uztea.
- c) Animaliekin krudelkeria, tratu txarrak edo sufrimendu agerikoak erakusten dituzten zinemarako edo telebistarako filmaketak egitea.
- d) Baimendutako ikuskizunetan parte hartzen duten animaliei anesthesiak, drogak edo bestelako produktuak ematea, batik bat, errendimendu fisiko handiagoa edo euren izatearekin bat ez datorren beste edozein jokabide lortzeko.
- e) Txakur arraza arriskutsuengandik kumeak ateratzea.
- f) Janari pozoituak bide eta esparru publikoetan uztea.
- g) Animaliak debekatutako ikuskizunetan parte hartzera behartzea.
- h) Hiru arau-hauste arin egitea, ebazpen judizialaren ondoriozko zigorra ezarrita, zigor-espedientea ireki baino bi urte lehenago.

29. ARTIKULUA.- ZIGORRAK

1. Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 671993 Legearen arabera, animalien babesaren inguruan gertatutako arau-hausteen kasuan, hurrengo isun hauek ezarriko dira:
 - a. Arau-hauste arinak: 30,05 eta 300,51 euro bitartean.
 - b. Arau-hauste larriak: 300,52 eta 1.502,53 euro bitartean.
 - c. Arau-hauste oso larriak: 1.502,54 eta 15.025,30 euro bitartean.
2. Zigorren zenbatekoak urtero eguneratuko dira kontsumoko prezioen indizea kontuan izanda. Indize hori aurreko urteko zigorraren zenbatekoaren gain aplikatuko da.
3. n) atalean araututako arau-hauste larriak Gune Zoologikoei buruzko apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuan jasotako 13. artikuluan ezarritakoaren arabera zigortuko dira.

30. ARTIKULUA.- ZIGOR GEHIGARRIAK

1. Zigor-ebazpenean arau-haustearen xede diren animaliak konfiskatzea aginduko da, animalien osotasun fisikoa bermatzeko beharrezkoa denean.
2. Konfiskatutako animaliak ondore horretarako gaitu diren instalazioetan zainduko dira, eta, lehenespenez, hirugarrenei lagako zaizkie, eta, azken buruan, hil egingo dira.
3. Arau-hauste larriak edo oso larriak gertatuz gero, kasuan kasuko, instalazioak, lokalak eta establezimenduak aldi baterako itxi ahal izango dira; arau-hauste larrien kasuan, gehienez ere, bi urterako

itxi ahal izango dira, eta, arau-hauste oso larrien kasuan, gehienez ere, lau urterako. Horrez gain, gehienez ere, lau urteko epean bestelako animaliak eskuratzeko debekua ezarri da.

4. Hiru urte baino epe laburragoan araua berriro hautsi bada, falta oso larrietan administrazio-baimena galduko da.

31. ARTIKULUA.- ZIGORRAK MAILAKATZEA

1. Isunen zenbatekoa mailakatu nahiz aurreko artikulua 3. paragrafoan ezarritako zigorren iraupena zehazteko, hurrengo inguruabarrak aintzat hartuko dira:

- a) Arau-haustearen gizarte- eta osasun-eragina eta sortutako kalteak.
- b) Araua haustean eskuratutako irabazi-asmo ez-zilegia eta mozkinaren zenbatekoa.
- c) Arauak behin eta berriro haustea. Arauk behin eta berriro hautsiko dira administrazio-bidean ebazpen irmoaren bitartez zigorra ezarri denean, batik bat, ordenantza honetan ezarritako arau-hausteetatik edozein zigor-espeditentea hasi baino bost urte lehenago egitearen ondorioz.
- d) Arau-haustea gaitzesteko mailaren ondorioz eragina izan dezaketen inguruabarretatik beste edozein, dela modu aringarrian dela astungarrian. Hori dela medio, garrantzi berezia izango du animaliei haurren edo ezgaien aurrean eragindako indarkeriak.

2. Halaber, ahal den neurrian eta kasuan kasuko administrazio-sektorearen berezitasuna dela-eta galdatutako xehetasunak nahiz egokitzapenak aintzat hartuta, zuzenbidekontrakotasunetik eta erruduntasunetik salbuesteko zigor-arloko erregelak modu analogikoan aplikatuko dira, ondore berberetarako, sektore horretan esanguratsuak diren bestelako inguruabarrak kontuan hartzeari kalterik egin gabe.

3. Egitate berberak arau ezberdinetan jasotako bi arau-hauste administratibo edo gehiago badakartzate, zenbateko handieneko zigorra ezarriko da, eta espeditentea instruitu nahiz ebazteko organo eskuduna zigor-ahala duen organoa izango da.

32. ARTIKULUA.- ZIGOR-ESKUMENA

1. Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 6/93 Legean jasotako foru-organoen zigor-eskumenari kalterik egin gabe, arau-hausteen zigorra, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera, udalak ezarriko du.

2. Arau-hauste arinak ebazteko organo eskuduna, indarreko legeriak udalari eratzikitako ahalmenen barruan, alkatetza-udalburutza izango da.
3. Arau-hauste larriak ebazteko organo eskuduna Osoko Bilkura izango da. Halaber, arau-hauste larrien gain zigorra ezartzeko eskumena toki-gobernuari eskuordetuko zaio. Bestalde, alkatetza-udalburutzak arau-hauste larrien ondoriozko espedienteak hasteko eskumena izango du.
4. Arau-hauste oso larrien gaineko zigorrei dagokienez, foru-organo eskudunak ezarriko ditu.

33. ARTIKULUA.- KAUTELA-NEURRIAK

1. Arau-hausteen ondorioz delitua edo falta egin bada, zigorra ezarri behar duen administrazio-organo eskudunak zigor-arloko jurisdikzioari horien berri emango dio, eta zigor-prozeduran ez du parte hartuko ebazpen judizial irmoa adierazten ez den bitartean. Gainera, ordu arte preskripzio-epea etenda geratuko da.
2. Esku-hartze judiziala gertatu baino lehenagoko administrazio-espedienteak instruitu behar dituzten agintariek hartutako kautela-neurriek indarrean iraungo dute, agintari judizialek esanbidezko adierazpenik egiten ez duten bitartean.
3. Zigor-espedientea hasi ondoren, eta arau-hauste berriak sortu ez gertatzeko xedearekin, espedientearen instruktoreak kautela-neurri hauek zioz hartu ahal izango ditu:
 - a) Animaliak aurreneurritz ateratzea, baldin eta lege honetan jasotako inguruabarretatik edozein jasan dutelako zantzuak badaude, eta, animalien bilketarako zentroan sartu ondoren, horiek zaintzea.
 - b) Instalazioak, lokalak edo establezimenduak aurreneurritz ixtea.
4. Kautela-neurriek horiek hartzeko arrazoiek irauten duten epean indarrean iraungo dute. Dena den, animaliak ateratzeko neurria ezin izango da luzatu espedientearen ebazpen irmoa eman ostean, eta instalazioak itxita izateko epeak ere ezin izango du gainditu izan Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 29-2 artikuluan ezarritako epearen erdia.

34. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEEN ETA ZIGORREN PRESKRIPZIOA.

1. Ordenantza honetan ezarritako arau-haustek modu honetan preskribatuko dira: arinak, lau hilabeteko epean, larriak, urtebeteko epean, eta oso larriak, bi urteko epean.
2. Arau-hausteen preskripzio-epea horiek egin diren unetik zenbatuko dira.
3. Zigorren preskripzio-epea bost urtekoa izango da horien zenbatekoa 305,00 eurokoa edo handiagokoa denean, eta, urtebeteko epean, zenbateko hori baino txikiagoa denean.
4. Zigorren preskripzio-epea zigorra ezartzeko eman den ebazpena irmoaren egunaren biharamunetik zenbatuko da.

2. ATALA. ANIMALIA ARRISKUTSUAK

35. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK

1. Animalia Arriskutsuak Edukitzeko Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen arabera, bertan jasotako egoerak arau-haustetzat joko dira.
2. Hona hemen arau-hauste oso larriak:
 - a) Animalia arriskutsuak bertan behera uztea, edozein espezietakoa zein txakurra izan. Hain zuzen ere, bertan behera utzitako animalia izango da, behar bezala identifikatuta edo jatorriaren edo jabearen identifikaziorik izan gabe, inoren laguntzarik gabe doana.
 - b) Txakur edo animalia arriskutsuak lizentziarik gabe edukitzea.
 - c) Animalia arriskutsua lizentziarik ez duen pertsonari edozein tituluren bidez saldu edo eskualdatzea.
 - d) Animaliak heztea euren oldarkortasuna areagotzeko edo debekatutako helburuak lortzeko.
 - e) Gaitasun-ziurtagiririk ez duen pertsonak animalia arriskutsuak heztea.
 - f) Animalia arriskutsuen lehiaketak, eragiketak, erakusketak edo ikuskizunak antolatu edo ospatzea, edo horien parte-hartzea ahalbidetzea, animalien oldarkortasuna erakusteko.
3. Hona hemen arau-hauste larriak:
 - a) Animalia arriskutsuak aske uztea edo horien ihesa edo galera saihesteko beharrezkoak diren neurriak ez hartzea.
 - b) Animalia identifikatzeko betebeharra ez betetzea.
 - c) Erregistroan egin beharreko inskripzioa ez egitea.
 - d) Txakur arriskutsua toki publikoetan muturrekorik gabe edo kateari lotu gabe egotea.

- e) Animalia arriskutsuak 50/1999 Legearen 10. artikuluan xedatutakoa hautsiz garraiatzea.
 - f) Agintari eskudunek edo horien agenteek eskatutako datuak nahiz informazioa ez ematea, 50/1999 Legean ezarritako eginkizunak bete ahal izateko, edo, informazio zehaztugabea edo agiri faltsuak ematea.
4. Arau-hauste arinak aurreko puntuetan zehaztu ez diren inguruabarrak izango dira, baldin eta horiek abenduaren 23ko 50/1999 Legea hausten badute, eta, bereziki, hauek adierazi dira:
- a) Animalia arriskutsuak toki publikoetan horiek gidatu edo kontrolatzen dituen pertsonak udal-lizentziarik edo erregistroan inskribatuta dagoela adierazten duen egiaztagirik gabe egotea.
 - b) Bide eta esparru publikoetan pertsona bakoitzeko txakur arriskutsu bat baino gehiago egotea.
 - c) Animalia arriskutsuak hartzen dituzten instalazioei begira ezarritako segurtasun-neurriak ez betetzea.
 - d) Urtean-urtean animaliaaren osasun-ziurtagiria ez aurkeztea.

36. ARTIKULUA.- ZIGORRAK

Aurreko artikuluan aipatutako arau-hausteekin batera hurrengo isunak ezarriko dira:

- Arau-hauste arinak: 150,25 eta 300,51 euro bitartean.
- Arau-hauste larriak: 300,52 eta 2.404,05 euro bitartean.
- Arau-hauste oso larriak: 2.404,06 eta 15.025,30 euro bitartean.

37. ARTIKULUA.- ZIGOR GEHIGARRIAK ETA KAUTELA-NEURRIAK

1. 35. artikuluan jasotako arau-hausteei zigorren gehigarriak ezarriko zaizkie, hala nola, animalia arriskutsuak konfiskatzea, esterilizatzea edo hiltzea, establezimendua ixtea eta animalia arriskutsuak edukitzeko lizentzia edota hezitzaile izateko gaitasun-ziurtagiria aldi baterako edo behin betiko etetea.

2. Arau-hausteen ondorioz delitua edo falta gertatu bada, agintari eskudunak animalia inkautatu ahal izango du agintari judizialak horri buruzko erabakia hartu arte. Hori egin ostean, egitateak berehala jurisdikzio-organo eskudunari helaraziko zaizkio.

3.- Agintari eskudunak edozein animalia arriskutsu kautela moduan hartu eta bilketarako zentzura lekualdatuko du, baldin eta horren jabeak ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuan jasotako neurriak betetzen ez baditu.

38. ARTIKULUA.- ZIGOR-ESKUMENA

1. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak heziketarako gaitasun-ziurtagiriarekin eta hezitzaileak prestatzeko ikastaroen homologazioarekin zerikusia duten arau-hausteen gaineko eskumena izango du.

2. Toki-gobernuaren batzordeak gainerako arau-hausteen gaineko eskumena izango du. Lurralde-eremua gainditzen bada, orduan eskumena Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailari dagokio.

3. ATALA. HONDAKINAK

39. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK

Apirilaren 21eko 10/1998 Legearen arabera, hona hemen animalien inguruan arau-hauste administratibo arinak:

Animalien eginkariak bide eta plaza publikoetan, haurren parkeetan, lorategietan, eta, orokorrean, apaingarriak jartzeko edota pertsonak ibiltzeko tokietatik edozeinetan uztea.

40. ARTIKULUA.- ZIGORRAK

Aurreko artikuluan ezarritako arau-hausteen kasuan, gehienez ere, 601,01 euroko isunak ezarriko dira.

41. ARTIKULUA.- ZIGOR-ESKUMENA

Zigorrek ezartzeko organo eskuduna alkatetza-udalburutza izango da.

4. ATALA.- OSASUN-ANTOLAMENDUA

42. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK

Euskadiko Osasuna Antolatzeko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 36.2.b.1^a artikulua hautsiko da eraso bat eragin duen animalia albaitari ofizial edo gaituaren behaketaren mende jartzeko udal-agintariak ezarritako agindeia betetzen ez denean, bai eta hartutako bestelako kautela-neurriak betetzen ez direnean ere.

43. ARTIKULUA.- ZIGORRAK

Aurreko artikuluan ezarritako arau-hausteen kasuan, 3005,06 eta 15.025,30 euro bitarteko isunak ezarriko dira, eta horiek ekainaren 26ko 8/97 Legearen 37.1 artikuluan xedatutakoaren arabera mailakatuko dira.

44. ARTIKULUA.- ZIGOR-ESKUMENA

Zigorrek ezartzeko organo eskuduna toki-gobernuaren batzordea izango da.

5. ATALA.- ORDENANTZAREN ARAU-HAUSTEAK

45. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. tituluaren babespean jasotako arau-hausteak, toki-gobernua modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearekin bat etorritik, hurrengoak dira:

- a) Ordenantza honetan jasotako eginbeharrak, debekuak edo mugapenak betetzen ez badira, arloko arauak zehatzean jasota ez daudenak, arau-hauste arina gertatuko da.
- b) Udal-zerbitzuei hiriko animalien kontrolarekin zerikusia duten jardueretan eragozpenak jartzen bazaizkie, arau-hauste arina gertatuko da.
- c) Bide publikoan hegaztiei, txakurrei, katuei eta gainerako kaleko animaliei janaria ematen bazaie, arau-hauste arina gertatuko da (beren beregi hori baimentzen denean izan ezik).
- d) Udal-agintariak eskatutako animaliak edukitzeko ezaugarriekin zerikusia duen informazioa edo agiriak ematen ez badira edo horren esku jartzen ez bada, ordenantza honen 7. artikuluan ezarritakoari helduta, arau-hauste larria gertatuko da.

46. ARTIKULUA.- ZIGORRAK

Aurreko artikuluan ezarritako arau-hausteen kasuan, isun hauek ezarriko dira:

- Arau-hauste oso larriak: gehienez, 3.000 euro.
- Arau-hauste larriak: gehienez, 1.500 euro.
- Arau-hauste arinak: gehienez, 750 euro.

47. ARTIKULUA.- ZIGOR-ESKUMENA

Zigorak ezartzeko organo eskuduna alkatetza-udalburutza izango da.

6. ATALA – ZIGOR-PROZEDURA

48. ARTIKULUA.- PROZEDURA

Titulu honetan araututako arau-hauste guztien zigor-prozedura Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarri zigor-prozeduraren printzipioetara egokituko da, eta goiko ataletan zehaztutako xedapen bakoitzaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigor-ahalari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea edo zigor-ahala egikaritzeko Erregelamendua onetsi duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretua aplikatuko da.

49. ARTIKULUA.- ALDIBEREKOTASUNA ZIGOR-ARLOKO PROZEDURAREKIN

1. Prozeduraren edozein unetan, instruktorearen ustez, berak instruitzen dituen egitateen gain ez-zilegi penala sortu bada, organo eskudunari horren berri emango dio, eta horrek instruktorearen iritzia arrazoizkotzat jotzen badu, egitate horiek Fiskaltzari komunikatuko dizkio, komunikazioari begira egin diren jarduketek lekukotza eskatuz.

Gisa berean, administrazio-prozeduran aztertutako egitateen gain zigor-arloko prozedura hasi denean Fiskaltzari horren inguruan egindako jarduketek komunikazioa egitea eskatuko zaio. Komunikazio bera eskatuko da zigor-arloko prozesua administrazio-prozeduran aztertutako egitateen ondoriozko egitateen gain aplikatu denean.

2. Fiskaltzaren komunikazioa jaso ondoren, zigor-prozedura ebazteko eskumena duen organoak hori eteteko erabakia hartuko du ebazpen judizial irmoa ematen ez den bitartean.

3. Hala ere, zigor-prozedura administratiboaren etendurak ez du eragozpenik jartzen hartutako kautela-neurriei begira, baldin eta horiek zigor-arloko prozeduran hartutako neurriekin bat datozenean. Bestalde, kautela-neurri horiek ez dira bateragarriak izango zigor-arloko kautela-neurriak zigor-prozedura administratiboan erabakitako kautela-helburuak erdiesteko behar bestekoak direnean. Kautela-neurri horiei eutsi edo horiek hartzeko egintza Fiskaltzari komunikatu beharko zaio.

4. Edozein kasutan ere, zigor-ebazpen judizial irmoaren bidez frogatutzat adierazitako egitateek administrazio-organoak lotzen ditu jorratutako zigor-prozedurei dagokienez.

Administrazioak zigor-ebazpen judizialaren bidez frogatutzat jotako egitateekin bat ez datozen administrazio-ebazpenak ofizioz berrikusiko ditu, berrikuspen-prozedurak ofizioz arautzeko arauei helduta.

50. ARTIKULUA.- AIEOri EGIN BEHARREKO KOMUNIKAZIOA.

Zigor-organo eskudunek AIEOri zigor-prozedura amaitzen duen ebazpenaren kopia igorriko die.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratu dira Ordenantza honen aurkako ordenantzak, erregelamenduak edo udal-bandoak, eta, batez ere, Galdakaon, 1997ko urtarrilaren 29ko osoko bilkuran behin betiko onetsitako Animalien Edukitza eta Babesa Arautzen duen Ordenantza.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, hori behin betiko onetsi ondoren, indarrean jarriko da hori oso-osorik Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hamabost egunetan.

Horrez gain, Galdakaoko udalaren webgunean argitaratuko da.

I. ERANSKINA

IDENTIFIKATU GABEKO ANIMALIA LAGATZEKO AGIRIA

Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 16. artikuluan eta Animaliak Eduki eta Babestea arautzen duen Udal-ordenantzaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, **aldi baterako pertsona honi lagatzen** zaio:

_____jn./and.ri, _____
_____NAN zenbakia duenari.

_____ helbidea duenari
(Probintzia: _____) hurrengo telefono-zenbakiarekin: _____
_____ eta helbide elektronikoarekin: _____,

_____ erregistro-zenbakia duen animalia **edukitzea**, ezaugarri hauekin:

Arraza: _____ Geruza _____ Kolorea _____
Sexua _____

Portaera _____ Adina (gutxi gorabehera) _____
_____ eta zentroaren sarrera-data hau duena _____ ,
identifikaziorik izan gabe.

Behean sinatzen duenak animalia zaindu, eta, animalia jabe legitimoa dela modu sinesgarrian egiaztatzen duen hirugarren pertsona agertzen denean zentrori itzultzeko konpromisoa hartzen du.

Era berean, Animaliak Eduki eta Babesteari buruzko udal-ordenantzaren 5-1 artikuluan eta ondorengoetan ezarritako kasuetan, zentrori hilabeteko epean identifikaziorako mikrotxipa jartzera (animalia zentroan sartzen denetik zenbatuta) joateko edo mikrotxip hori beste zentro edota albaitari-klinika batean ezarri dela egiaztatzen dituzten agiriak aurkezteko konpromisoa hartzen du.

_____n, 200_____(e)ko _____ren _____(e)(a)n

Irakurrita eta onartuta: _____
(Animaliaren lagapena onartzen duen pertsonaren sinadura)

II. ERANSKINA

ANIMALIAK ERASOA EGITEN DUENEAN BEHAKETA EGITEKO NAHITAEZKOTASUNAREN JAKINARAZPENA

Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, udalek, beste batzuen artean, pertsoneri eraso egin dieten animaliak isolatu edota zentroan sartzeko agindua eman beharko dute, horiek behaketa-prozesuaren mende jar daitezzen.

Gisa bertsuan, Animaliak Eduki eta Babestea Arautzen duen udal-ordenantzaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lesioak eragin dituen animalia jabeak eta edukitzaileak bete beharreko prozedura zehazten da, bai eta zigorra ere, hori betetzen ez bada.

Aurrekoaren ariora, hurrengoa adierazten da:

Lehenengoa: _____jn./and.ak,
_____NAN _____zenbakia _____duenak,
_____helbidearekin, eta
telefono-zenbaki honekin: _____, eraso eragin duen
animaliaren jabea edota edukitzailea den aldetik, _____
identifikazio-zenbakia duena (halakoa duten animalien kasuan),
_____arrazakoa, 24 orduko epean berak aukeratutako al baitari
ofizialaren edo gaituaren behaketa-prozesuaren mende jarri behar
duela, hamalau eguneko epean. Behaketa hori amaitu ondoren, 48
ordu epean, Galdakaoko udaltzaingoari al baitariaren
ziurtagiria/txostena bidaliko dio.

Bigarrena: Jasotako informazioari buruzko argibideak edo informazio
gehiago nahi izanez gero, Galdakaoko udaltzaingorengana jo behar
da.

_____, 200____(e)ko _____ren _____(e)(a)n

Irakurrita eta onartuta: _____
(Jabearen edo edukitzailearen sinadura)

III. ERANSKINA

TXAKUR HOZKARIEI BURUZKO ALBAITARIAREN TXOSTENA

Albaitaria:

Elkargokide-zenbakia:

Helbidea:Telef.:

ANIMALIAREN DATUAK

Jabea		NAN	
Helbidea		Udalerria	Telefonoa
Espeziea	Identifikazioa	Izena	Arraza
Adina	Sexua	Erantzukizun zibileko aseguru	

ZIURTATZEN DUT:

Adierazitako animalia zaintzapean eta behaketa-prozesuaren mende egon dela, eta azterketa egunetan egin ondoren, zoonosi-gaixotasuna eragin dezakeen sintomarik ez duela. Horrenbestez, behaketa- eta zaintza-prozedura amaitutzat jotzen dut.

Sinadura eta zigilua

Tokia eta data: